

Jesusa Azkarate Agirrezabal
Antzuola, Gipuzkoa (1915-2001)

Aurkibidea

Biografia

Antzuolako Kalebarren kalean jaio zen 1915. urtean. Dendaria zen. San Pedro eguneko ohitura eta usadio zaharrak ekartzen ditu gogora grabazio honetan.

Zintak

ANT-028

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Deogracias Horrillo, Marijo
- **Data:** 1998-06-14
- **Iraupena:** 21 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. San Pedro eguneko ohitura berezia

- **Erref:** ANT-028/001
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>"San Pedro arbolia" gauez ekarri eta goizaldera ipintzen zen. Meza non ematen zuten egun horretan. Bezperan suak egoten ziren; txistua eta danbolina.</p>

Transkripzioa

-Atzo ibilli ziñan esaten zapatuan zala arbolia ekartziana.
-Bezperan.
-Bezperan. Egitten zana zala...
-Gabaz, gabaz jun, arbolia ekarri, ezta? Orduan lehenarbolia gabaz ekartzen zan, san Pedro arbolia gabaz ekartzen zan lehen. Gabaz ekarri ta gabaz ipiñi. Ipiñi be bai, goizaldera. Jentia jaikitzerako ipinita.
-Juten zien kuadrillak...
-Oin azkenengo urtetan gabian ekarri ta egunez jaso. Baiña len-len gerra aurretik gabaz, ezkutuan bezela.
Gizona: Harrapau eitten zan arbolia.
-Harrapau eitten zan.
Gizona: Horregaitik itten zan gabaz, permiso barik.
-Eta juten zienak billa izeten zien edozein gazte ala...
-Antzuelakuak? Kalebarrengo gaztiak.
-Baiña kintuak izen biher zien ala bestela?
-Ez, ez, edozein, edozein. Nahi dabenak. Nahi zebanak e...
-Eta esan giñuan izeten zala ze piñu, ze arbola...
-Ez dakit ze... oingo antzera izengo zan edo.
-Lizarra izengo zan... Eta gero itten zala sua esan giñuan.
-Sua.
-Eta batzutan eitten zala plazan edo...
-Azkenengo errekan itten zan, erreka baztarrian. Errekia zabalaua zan oin baiño. Oin kamiñua dao zabaldua. Erreka baztarrian eitten zan, azkenengotan. Azkenengo edo bai urte batzuk.
-Eta salto gaiñian eta ibiltzen zan jendia, saltoka gaiñetik?
-Bueno, han hainbeste ez, ez zeuan lekuik eta baiña...
-Bestela bai?
-Bestela bai.
-Zeozeatik espeziala izeten zan hori suana?
-Nik ez dakit. Sua espeziala san Juanetan, san Juan bezperan. Eta haren imitaziñon bat izengo da, nik uste dot, haren imitaziño bezela.
-Gero ibili giñan berbetan mezian inguruan, mezia ez zala emuten plazan.
-Urte batzutan egon zan. Bi-hiru urtetan edo, plazuelan. [...] Baiña aurretik elizan, bere orduan.
-San Bartolome elizan?
-San Bartolomen hasi zan hillan bost edo... "mil novecientos cuarenta", mezia emoten. Baiña haura San Bartolome egunian. [...] Gero ibili giñan esaten jai-giro horretan izeten zala arbolia jasotzia hori gabian, baiña bestela bezperan dantzia be egoten zan, ez?

-Bueno, dantza asko ez zan egoten, suak, jentia batu puxkat. Eta hamen egoten zan dantzia, danborra. Txistua ta danborilla.
-Eta zeintzuk ibiltzen zien joten?
-Ba len-len Santi eta Pedro. Santimonixon eta Pedro izeten zien hemengo txistulariak, bi.
-Horrek Antzuelakuak?
-Erak nahikua, Antzuelakuak.

2. San Pedro egunean jokoak egiten ziren; musika egoten zen

- **Erref:** ANT-028/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:40

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Pedro egunean jokoak egiten ziren: zaku-karrera; maleta-karrera... Filarmonika eta panderoa.</p>

Transkripzioa

-Eta gero san Pedro egunian atsaldian jaixak, jokuak. Kaskara-jokua eta zaku-karrera eta asto-karrera, eta beste bat izeten zan maleta-karrera. Oin ez da ikusten hori, baiña lehen asko eitten zan maleta-karrera. Zuek ez dozue jakingo...

-Hori zer da, disfrazena moduan?

-Bai. Maleta bat erropaz beteta ipintzen zan bakoitzai, eta gero zeñi tokatzen jakon, harek biaje bakoitzian erropa bat jazten zeban, eta zenek bixkorren, zein bizkorren jazten zan, zein onduen, harek irabazten zeban. Maleta karrera askotan eitten zan. Oin ez, hamen ez da itten.

-Maletako erropa danak jantzi bihar zittuen?

-Bai.

-Nik ikusitta daukat hori.

-Oin-oin ez da itten. Eta zaku-karrera be oin zakuak billatzia be kosta ingo litzake.

-Eta asto-karrera be bai, ez?

-Baitta. Eta orduan oin beste jente ibiltzen zan ala gehixao?

-Antzera. Dozenan bat edo.

-Dozenan bat? Orduan oin baiño gehixao. Oin bost bat lagun ibiltzen die... Eta atzo esan ziñuan aston batek irabazten zebala urtero edo?

-Ez dakit. Ez naiz akordatzen zenek irabazten zebanik.

-Gero esan giñuan filarmonikia be egoten zala.

-Bai, filarmonikia... Kanpoko filarmonikista bat etorriko zan jotera, filarmonikia eta panderua, hamengo orkestia hauraxe izeten zan. Lenengo urtetan, gerra aurreko urtetan, gero dotoriao jarri zian, baiña lehen filarmonikiakin nehikua zan.

-Esan ziñuan Antzuelakon batek be juten zebala, ez, filarmonikia.

-Filarmonikia juten zeban Bazterretxeko Alejandrok. Baiña beti ez, batzutan haura izeten zan.

-Iraustako iñor...

-Iraustakuak dulziñia, dulziñia zan haura, ezta? Iraustako Benitok juten zebana ze zan, dulzinia? Harek be juten zeban batzutan.

3. Kanpoko gazte asko Antzuolara San Pedro bezperan

- **Erref:** ANT-028/003
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantzak

Laburpena:

Dantzak. Kanpotik gazte asko etortzen ziren. Ohitura zaharra: San Pedro bezperan landareak etxe barrura sartzen ziren; tokiz aldatzen ziren.

Transkripzioa

-Dantzan herrikuekin eitten ziñuen?

-Herriko eta kanpoko, kanpokuak etortzen zien, oin baiño gehixao kanpokuak etortzen zien. Herriko eta kanpoko. Jentia bastante juntatzen zan.

-San Pedrotan ez zan izeten landarak etxez etxe aldatzen ibiltzia eta?

-Bai, tiestuak eta. Iñun baldin bazeren bentanetan eta, jentia barrura

sartzen ibiltzen zan, kanpuan gelditzen bazan, toki batetik bestera aldatu eta hala ibiltzen zien tiestuak.

-Hori ze ohitura da, nundik etorritakua?

-Oinddio be San Pedro bezperan barrura sartzen ibiltzen ga, porsiakaso. Hoixe, akordatzan bada baten bat. Ez dakit zegatik izengo dan, kostunbre.

-Eta arboliaquin zeoze hola pasau danik edo badakizu?

-Ez, ez jat akordatzan.

-Hala ezkutuan ekartzen zan igual harrapau edo.

-Urte baten hankia ez zeban apurtu Juanito Santiagonekuak? Arbolia ekartzerakuan ez zan? Ez? Besten baten izango zan.

-Haura ekartzia be ez zan lan makala izengo.

-Ez, erreza ez. Illunpian ekarri bihar.

-Eta ixotzeko eta be gabez eta horrela, ondo arreglatzen zien horrek? Iez ixexia jausi ein jakuen eta.

-Eta esan giñuan ipintzen jakola goixan zeoze, koroia edo.

-Bai, koroia, lorekin einddako koroe bat eta gero itxulapiko bat. [...]

-Erak ipintzen zittuen?

-Ein be bai.

-Arbolak ekartzen zittuen igualak?

-Ez. Aurretik eindda egoten zan haura.

-Eta hori zeñek itten zeban?

-Neskak.

[...]

-Eta asto-karreran neskaik eta ibiltzen zan?

-Ibiltzen zan Akilloko bat, irabazi ein zeban urte baten. Akillokuak, eta gero repetidu ein zeban baiña berriz ez zeban irabazi.

-Astua aldatuko zotsen edo zeoze.

-Lelengo premixua irabazi zeban urte baten.

-Izengo zan orduan neska batek irabaztia karrera ta...

4. San Juan gaueko sua

- **Erref:** ANT-028/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Sua erreka ondoan egiten zen; Zurrategi aldera.</p>

Transkripzioa

-Eta sua errekan esan dogunian nun zan?

-Hortikaldian, etxien aldera. Bueno, Zurrategi aldera.

-Eta urte askuan egin zan?

-Bai, bastante urtian. Ze orduan erreka zabala zan, han toki asko zeuan baztar haretan.

[...]

-Zegatik eitten zan han?

-Ba hantxe zeualako lekua izengo zan.

-Erreka onduan ezin ba saltoik eta eiñ eta hola.

-Ez, ez. Bueno, salto, toki asko zeuan han. Erreka Kalebarrengo zubittik Errotaberrira arte, bastante leku zeuan.

5. San Pedro eta San Juan, jaiegunak

- **Erref:** ANT-028/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Pedro eta San Juan eguneko ohiturak.

Transkripzioa

-Bazkaixak eta egun horretan zer?
-Ez zan eitten, ez. Bakoitzak berak. Oin bezela ez.
-Jaixan zeoze espeziala edo preparatzen zan edo...
-Ez. Etxian eingo zan baiña bakoitzak berak.
-Eta ez zan gero eitten arantzan bat atian ipiñi San Pedrotan?
-Hori San Juanetan izeten zan. San Juan goizian, San Juan goizeko..., zela zan be..., Artolaneko Ximonen aittajana zanak urtero eitten zeban biaje hori, ekartzen zeban atian ipintzeko san Juan goizian. San Juan goizeko izotzakin (ihintzakin esan nahi dau?) batutako lora bat izeten zan. Ez dakit zein izeten zan. Bere izena zeukan lora horrek. Ez dakit zein.
-San Pedrotan ez zeuan holako ohitturarik?
-San Pedrotan ez.
[...]

6. San Pedro eta San Juan eguneko ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-028/007
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:18:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Kanpoko mutilak oinez edo bizikletaz etortzen ziren. Festetan zer egiten zen. Filarmonika.</p>

Transkripzioa

-Eta gero atzo be ibili ziñan esaten kanpotik etortzen zanian jendia bizikletetan eta etortzen zala.
-Bueno, batzuk, oin bezela kotxeik eta ez zeuan. Oñez edo bizikletan o.
-Rarua eitten jat bizikletan, orduan egongo zien kamiñuekin ez zan erreza izengo.
-Bueno, antzera bizikletan ibiltzeko. Errezao. Oin errezao edo nekezao, trafiko gehixao.
-Bai baiña kamiño hobia, zulo barik.
-Kamiño hobia bai.
[...]
-Aurretik hasten zan, mutil gaztiak, umiak-eta aurreko egunetan batzen

ibiltzen zien ordurako eukitzeko.

-Eta edozer gauza izeten zan batzen zana?

-Ba mendixan billautako sasixak-eta, ahal zebeñ dana, erretzen zan dana.

-Eta neskak ez ziñuen eitten holakoik?

-Ez, ez, mutillak izeten zien itten zebeñak. Mutil gaztiak. Izengo zien akaso neskak be eren artian. Gehixenak gaztetxuak, mutikuak.

-Akordatzen jatzu kantun bat ordukua, dantzari eitten ziñuena edo abestu eitten ziñuena?

[...]

-Kantuan ez zan itten orduan. Bueno. Panderua jotzen zebanak trikitixa jotzen zebanian kantatzen zebeñ, baiña gero jotzen zebeñ beste pieza batzuk, pasodobliak eta habanerak eta beste pieza batzuk. Orduan oin bezela kantau ez zebeñ eitten. Soñua jo eta jentia dantza ein.

-Eta habanerak eta be bai orduan.

-Orduan modan zeuan.

-Tablaurik ez zan ipintzen, ez?

-Bueno gerora bai pixkat e, txikixa. Oin bezelako haundixak ez. Keba. Halako tabla batzuk eta hutsa, zeoze. [...] Gauza haundik ez.

-Baiña musikuak egoten zian ala?

-Ez, ez, ez. Lelengo pare bat hiru bat altuena, filarmonikia jotzen zebeñak bat, bi..., buena bat jotzen zebana eta gero pandeua. Bi filarmonikari bazeren nahikua. Gehixao ez zan, oin bezelako tablaurik ez zan bihar orduan. Holaxe, puxkat altutzeko tabla batzuk eta kitto.

-Eta erropak eta hola, zela juten zien musikuak?

-A, erenakin.

-Diferente...

-Diferenteik ezebez. Betiko antzerako jantzixa. Diferenteik ez.

-Asto-karrerako premixuak eta be han egoten zien?

-Bai. Han bertan mahai bat ipiñi, mahai bat eta premixuak eta hantxe.

-Akordatzen za zeintzuk izeten zien premixuak?

-Ez notsuke esango irabazteilliak ze...

-Ze izengo zan?

-Dirua edo "generalmente".

-Orduan ezingo zan diru asko ipiñi.

-Ez, asko ez. Premixo asko ez zan izeten. "La honrilla".

7. San Pedro arbolaren inguruko azalpenak

• **Erref:** ANT-028/008

• **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:21:07

Gaia(k):

• Natura » Flora

• Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Jaiak nork antolatzen zituen. San Pedro eguna lehenago beti jai eguna izaten zen. San Pedro arbolaren inguruko kontuak.</p>

Transkripzioa

-Horrek jaiak zeinek antolatzen zittuen, auzoko lagunak edo?

-Bertako jentia izengo zan, auzokuak; baiña oin aña diru ez zan egoten, batu be ez oin aña eta.

-Auzoko bazkairik orduan ez zan eitten?

-Ez zan eitten, ez.

-Astia zihar tokau ezkerro jaixa, orduan itten zala.

-Bai, San Pedro eguna jai izeten zan beti, beti jai izeten zan San Pedro, oinddio puntura arte. Oin Zapatura aldatzen da, baiña lehen bere egunian. Lehen jai izeten zan eta.

-Jai izeten zan [...]

-Ez, San Pedro zan hogeta bederatzi.

-Bezperan jai izeten zan?

-Ez, bezpera aste. Illuntzian batuko zan jentia. Bezpera aste eta gero hurrengo hogeta beratzixa jai, hauraxe jai.

-Ze esan dozu, bezpera aste?

-Asteguna. "Veintiocho", hogeta zortzi asteguna izeten zan. Eta hogeta bederatzixa jai.

-Eta jaixa hasten zan zortziretan edo bederatzixetan edo...

-Edo lehenao igual. Orduan hamaikak hamabittarako erretirau eitten zan jentia.

-Baiña orduan oso illunetan ez zien juten arbola billa, ze oin udan beranduao illuntzen dau, ez?

-Hamaikak hamabixak illun egongo da.

-Arbola billa juteko orduan.

-Orduantxe arbola billa.

-Orduan asko luzatuko zan, ixo arbolia eta. Ala jendia aurrian ez zeuala ixotzen zan?

-Hoixe ba, jendia juten zanian, jendia erretirau ta gero. Bueno, harek jun orduan hamarrak aldian, eta arbolia ekarzera izengo zan ba goizaldia. Sartu be orduantxe.

-Eta edozein lekutatik ekartzen zan?

-Aurretik kotejauta eukiko zezen nun zeuan onena baiña. [...] Hartu eta ekarri.

-Edozeiñen basotik?

-Edozeiñetik.

-Eta gero horrek ez zien saltzen arbola horrek, ala bertan gelditzen zien?

-Ez dakit saltzen zien, edo saltzen bazien be... dirua nun gastatu egongo zan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com